



# TOLOSALDEA

2013-2014 ikasturtea **ENERGIA JASANGARRIA**



## Aurtengo gaia ezagutzen

Ikasturte honetan ere Tolosaldeko 12 herritako ikastetxeok gogotsu ekin diogu Eskolako Agenda 21 proiektuari. Aurten Energia Jasangarria izan da lantzeko aukeratutako gaia, dagoeneko ikastetxeetako diagnostikoa egiten ari gara eta hobekuntzak pentsatzen: egokiak al dira gure eskolako instalazioak? Zein jarrera daukagu energiaren erabilpenaren aurrean? Posible al da gure ikastetxeetako eraginkortasun energetikoa hobetzea?



**Apaingarri jasangarriak** Aduna, Alegia, Anoeta, Berastegi, Ibarra, Tolosa, Villabona eta Zizurkileko ikastetxeek material berrerabiliekin apaingarri jasangarriak egin dituzte udalen laguntzarekin. Modu honetan, hondakinak gutxitu eta energia alperrik gastatzea saihesteko bidean jarri dira! Ibarran dagoeneko azken hiru urteetan eginiko ibilbidea ikusirik, aurtengoa Gabon apain eta jasangarriagoen lehenengoa besterik ez delakoan gaude!

\* **Gabonak eta kontsumoa** Txikienok gure herri eta hirietan egun hauetan areagotzen den gehiegizko argitasunak ingurugiroan duen eragina ezagutu dugu Tolosako Ingurumen Zentrotik prestatutako txotxongilo eta eskulan saioen bitartez.

Izarrak ikusi nahi ditut, beraien formak ezagutu, izar uxoei desioak eskatu ... baina herrietako gehiegizko argiteriak izarrak estali eta animalia eta landarediaren eragin kaltegarriak ditu! Egin ditzagun Gabonetako apaingarri birziklatuak eta ekidin dezagun gehiegizko argiteria!



**JARDUNALDIAK** Energiari buruzko lehenengo jardunaldietan, Tolosako L. H-ko Institutuko ikasleok tailer osagarriak burutu ditugu. Jardunaldien arrakasta dela eta zoriondu nahi zaituztegu!

**Hurrengo pausua k...** energiari dagokionez herriaren egoera aztertzea izango da eta burubarri ikusiko gaituzue herrietako kaleetan zehar energiari buruzko azterketaz eta galdeketak egiten.



# TOLOSALDEA

Curso 2013-2014 ENERGIA SOSTENIBLE



## Sobre el tema elegido este año

Una vez más, los centros escolares de 12 pueblos de Tolosaldea hemos retomado con ganas el proyecto de Agenda 21 escolar. El tema elegido para este año ha sido la Energía Sostenible. Ya hemos hecho el diagnóstico de los centros escolares y proponiendo mejoras en este ámbito: ¿Son adecuadas las instalaciones de nuestra escuela? ¿Qué hábitos tenemos en cuanto al uso de la energía? ¿Es posible mejorar la eficiencia energética de nuestro centro?



**Adornos sostenibles** En Aduna, Alegia, Anoeta, Berastegi, Ibarra, Tolosa, Villabona y Zizurkil, con la ayuda del ayuntamiento, hemos realizado adornos navideños. De esta forma hemos iniciado el camino hacia la reducción de residuos y evitar el gasto innecesario de energía. ¡Tras el recorrido realizado por Ibarra en los últimos tres años, no nos cabe la menor duda de que este no será mas que el primero de unas Navidades decoradas y sostenibles!

\* **Navidad y consumo** Los y las más peques hemos aprendido sobre la repercusión de la contaminación lumínica, que estos días aumenta, sobre el medio ambiente en una sesión de marionetas organizada por el Centro Medioambiental de Tolosa (TIZ).

¡Quiero ver las estrellas, conocer las constelaciones y pedir deseos a las estrellas fugaces! Pero la contaminación lumínica las tapa y además tiene consecuencias negativas sobre la flora y la fauna. ¡Hagamos adornos de Navidad reciclados y evitemos la contaminación lumínica!



**JORNADAS** En las primeras jornadas sobre energía realizadas en Tolosa, alumnado del Instituto Superior de Formación Profesional de Tolosa hemos realizado los talleres complementarios dirigidos a la ciudadanía. ¡Felicitaciones por el éxito de esta actividad!

**Siguientes pasos...** A partir de ahora comenzaremos con el diagnóstico de los pueblos respecto al tema de este curso, por lo que nos veréis analizando y preguntando sobre eficiencia energética en nuestras calles.